

KRONIKA EUSKAL BERTSOETAN

Jesus Mari Leizaolaren liburu bat izan dugu lagun gogoeta honetarako. Izan ere, hark euskal poesiaz lan handia egin zuen eta haren liburu batek, hain zuzen ere, *LA "CRONICA" EN LA POESIA POPULAR VASCA* du izenburu.

Hainbat kontaketa mota dira literaturan. Bereizketa nagusietariko bat, hitz lauzko kontaketa eta bertsozkoa. Hitz lauz kontatzeak eguneroko hizkerara moldatzen du mezua. Hauetariko batzuk fantasiazkoak izan arren, egiantzeko egiten eta errealtatean txertatzen saiatzen da kontatzailea. Betiere, hasieran, entzulearen gogoia hartara erakartzeko esaldi eginak edo formula bereziak erabiltzen dira. Beste horrenbeste esan dezakegu amaieraz: Kontaketa ez da ustekabea eta bat-batean amaitzen. Kontalariak haria hartu eta kontaera osoa bere mende duen sentipena sortaraziz darama apurka-apurka azkenerantz eta hemen ere, esaldi eginak eta gainera errimatuak erabiliko ditu: *bau hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan...*

Kontaketan bertsoa erabiltzeak, besterik gabe, xede berezia agertzen du kontatzailearen aldetik. Gaia, forma aldetik, eguneroko maila arruntetik jaso egin nahi da. Era bateko nahiz besteko zirrara sortu nahi da entzulearengan. Errealitatearen hitzezko imitazio hutsa egin beharrean, haren adierazpen jasagoa egin nahi izaten da, hura transformatuz, baina ez desitxuraturuz, entzule-irakurleengan zirrara sortzeko, hainbat arazo eta gertakaritara haien gogoia erakartzeko.

Jesus Mari Leizaolak kronika handia eta kronika txikia bereizten ditu; haren hitzez esateko, "La Gran Crónica" eta "La Crónica menor". Bataren eta bestearen ezaugarriak nahiko argi adierazirik daude. Kronika handiak gertakari nagusiak, garrantzitsuak kontatzen ditu eta bestalde konposizio luzeak dira; hau da, berez dira handiak eta ahapaldi ugaritan emanak. Euskal historiaren ikuspegi nahiz atal batzuk, pertsona aipagarri batzuen biografiak etabar. sartu ohi dira kronika handietan. Kronika txikia, ordea, egunerokotik hurbilago dago, askoz ere arinagoa eta garai modernoan ohikoagoa da. Hauen toki berezkoa egunkariak izan ohi direla diosku eta "kronika txikia" deitu behar zaiela, gertakari nagusiak kontatzerakoan ere zatika egunez egun ematen direlako, eta kontatzaileak hasieratik ez dakizkielako haren geroko gorabeherak eta ondorioak. Beste kasu batzuetan, gertakariak eurak dira txikiak, baina ingurumari jakin bateko pertsonen interesari ongi erantzuten diotenak, haientzat berarizko garrantzia dutenak.

Batetik eta bestetik hainbat adibide jartzen dizkigu: Kronika handietatik, bi hauek:

- Hiribarrenen *Eskaldunac* (1851). Nafarroako erregeen kronika bertsotan.
- *Guillermo II* (1928). Zuberoako pastoralak. 1914tik 1918ra arteko Europako gerra osoaren kronika.

Kronika txikietan, adibide gehiago dakartza:

- *Napoleoni* (1852). Kronika politikoa.
- *Madril goitsu barrizabaltzailak* (1777-1840).
- *Bertso berriak Oriyoko baliari jarriak* (1901). Herri jakin bateko gertaera zehatza.
- *Hamalau eriyotzena* (1825). Auzi kriminal baten kronika.
- *Irungo pilota partida* (1851). Kirol kronika.
- *Ezkont fama bat* (1828); *Zumalakarregi* (1853). Gizarteko kronika.
- *Betroyarena* (1862) (Xenpelar). Umorezko kronika.

“Kronika” izena, gehienbat kontakizuna izateari eta denborari lotua izateari zor zaio. Hala dio Jesus Maria Leizaolak: “Son obras en que la intemporalidad natural de la poesía ha cedido el paso a una temporalidad fundamental”.

Erdi Aroaren hasierako latinezko testuen aipamen laburra dakar. Haiei “crónicas”, “anales”, “cronicones” deritze. Dataz hasi ohi dira; Erromako kontsulei, inperioaren urteari, Erromaren sorrerari, Augustoren aroari, kristau-aroi erreferentzia egiten dieten dataz. Euskal bertso-sorta ugaritan hasieran data jartzeko ohiturak, haien eta hauen artean nolabaiteko lotura izan daitekeelako susmoa sortu du ikerketa honen egile-arengan. Nahiko esanguratsua dela uste du, kronika haietan maiz aipatzen baitira euskaldunak herri bezala hartuz eta euskal lurraldean idatzitako kronika luze batzuetan, esaterako, Albeldakoan, hasierako data jartzeko ohitura nabari baita. Albeldako kronikak honela kontatzen du X. mendean Antso I.a Gartzes Iruñeko errege izendatzea: “Aera DCCCCXLIII surrexit in Pampilona rex Sanctio Garseanis...”.

Euskal poesia herritarrean, dataz hasten diren kronikek askoz ere hurbilagotik hartzen dituzte kantatzen diren gertaerak eta, gehien-gehienetan, urte berean edo aurrekoan gertatutakoak dira; bestalde, poeta bera agertzen da kantatzen diren gertakarien tarteko nahiz lekuko. Ezaugarri hauek ez dira ageri latinezko kronika zaharretan. Jesus Maria Leizaolak dakarren kronika nagusiaren lehen adibidea, J.M. Hiribarrenen “*Eskaldunac*” dela esan dugu; hau, latinezko kronika zaharren sailean jartzen du, poema hori ez baita lan herritarra, elizgizon batek idatzitako poesia jantzia baizik. 1853ko abenduan Baionan argitaratutako poema da. Honen egilea, J.M. Hiribarren Azkainen (Lapurdi) jaio zen 1810ean, eta Baionako katedraleko ohorezko kalonje zela hil zen, 1866an, Urruñako eta Bardozeke parroketan eliz karguak izan ondoren. A. Lhandek haren biografia idatzi zuen *Gure Herria* aldizkarian 1925ean.

Honela hasten da Hiribarrenen Nafarroako erregeen kronika:

*Zazpigarren mendea
hamasei urthetan,
Garsis erregetzean
eskal-herrietan;
Donibane Garazik
ala Nafarroak
biek nahi ohore
emana khorroak.*

Berak hautatu zuen neurrirako era-erara datorkiola urtea aipatzea diosku ikertzaileak eta erregeen zerrenda ematean ere errepikatzen duela:

*Hamekagarren mende
hiru laurdenetan
sakratzean Ramirez
eskal-herrietan;
ez da izan errege
baliosagorik
ez eta zorionez
haren parekorik.*

Euskal Herriaren antzinatasuna azpimarratu nahi du poemaren egileak, elezaharretara joz. Honako hau adierazi nahi balu bezala: Zuok, Erromako kronikariok, "ab urbe condita" jarri ohi duzue; gure herriak, ordea, ez du datarik, antzina zaharretan galtzen direlako haren aztarnak:

*Nibork ez du munduan
eskaldun adina...*

Eta aurreraxeago, honela dio:

*Yesu-Christo oraino
Etzen ethorria,
Bi mila urthe leben
Ba zen Iberia...*

Kronika handiaren bigarren adibidetzat 1914tik 1918ra arteko Europako gerra osoaren kronika dakar. Hau, baina, herri-literaturakoa da bete-betean eta ez, aurrekoa bezala, literatura jantziaren sailekoa. Frantsesen ikuspegitik eta gerra horretan soldadu izandako batek bere lagun eta ahaideentzat idatzia da; gerra amaitu eta hamar urte igaro orduko egina. Leizaolak dioskunez, mendebaldeko literatura guztien artean euskal literatura da 20. mendean mundu mailako horrelako gertakari baten kronika osoa bertsotan eman duen bakarra. Eta horren arrazoia ere nahiko argi uzten du: euskaraz bada horrelako lan bat burutzeko herri-literatura mota egokirik: Zuberoako pastoralak. Beraz, kronika hau 1928ko antzerki-lana da; 1929an antzeztu zen. Pastoral hau bizi-bizia gertatu zen, bai antzezleak eta bai ikusleak gerrako soldadu-ohiak, gerran hildako, zauritutako nahiz elbarri gelditutakoen gurasoak, emazteak nahiz seme-alabak izan zirelako. Lehen bi laukoetan ikusleei agur egin eta sarreratxoaren ondoren, hirugarrenean data eta gaia adierazten dira. Hona hiru ahapaldiak:

Lehen pheredikia

*Jinkuk egün hun deiziela
kunpaña uburablia,
bai eta guri ver gisan
zien satisfatzeko grazia.*

*Egün buna horra gira
ikbusten düzien bezala
trajedia handi baten
zien errepresentatzera.*

*Milla bederatzi ehün eta
hamalau gerren urthian
gerla handi bat basi zen
mundu kartiel ororetan.*

Leizaola jaunak era askotako adibideak jarri nahi izan dizkigu kronika txikian: politikoak, gertakari sozialak, kiroleta-

koak, umorezkoak, auzi kriminalak... Bertso-liburu eta kantutegiak pixka bat arakatus, beste hainbat ere aurkitu ahal izan ditugu. Ez ditugu sorta osoak emango, data datorren ahapaldia eta hide batez adierazgarri izan litekeen besteren bat baizik:

Jai bat dela eta ateratako bertsoak

*Milla ta zazpireun
Ta larogueta amairu
Cer pasatu jaten aurten
Cantatu naiogu
Inducira noiala ni
Fiesten atzian
Esaten nebala sarri
Imenganian.
Ay, ene, ai ene, ai ene bada.
Momocho tambolinagaz
Atabalaz Pepe
Nic zapatac, calcerdijac
Besapian bere
Ecin eguin aldatza
Güero aldapia
Inducijan eguiteco
Lelengo dantzia
Ay ene...¹³*

Harritzekoa da gai arrunt eta gora handirik gabearen bu-ruan data jarri izana. Geroxeago adieraziko dugunez, gai edo gertakari esanguratsuak irakurleari aurkezteko eta honen arreta erakartzeko erabiltzen zituzten sarrerako formulak eta hauen artean data.

¹³ URIARTE, Jose Antonio, *Poesía Bascongada* (Dialecto Vizcaíno). Bilbo, 1987, 112. or.

**Gai politikoa: Santo Domingoco Isliaren Española
biurreriari Musa Vizcaitarrac Antiguaco arechpian**

*Milla zortzireun, eta
Iruroguei urte
Igaro, ta urrengua
Doiala dot uste:
Ta laugarren illaren
Seigarren eguna,
Amairu orduan argui
Gaur eguin deuscuna.¹⁴*

Andres Mitxelenaren bertsoak

Ugari dira bertso zaharren bildumetan ezkontzako asmoak zapuztu izanak eragindako bertsoak. "Markesaren alaba" deritzon bertso-sorta izan daiteke ospetsuena. Maitemindu erromantikoen istorioa kontatzen da hor. Andres Mitxelenaren bertsoetan, ez da inolako aire erromantikorik, bestelakoa baizik. P. Perurenari utziko diogu hitza:

"Txumitxeneko alaba Zelestina Intxausperekin adiskidetu, eta denbora frankoan elkarrekin ibili ondoren, *etziyotela uzten aitik eta amak*, eta hautsi egin omen zituen andregaiak *ezkontza aren planak*, eta mutilak bere amorrazioan bertsoak atera, orduan ohitura zen bezala, elkarren pasadizo guziak bere alde samar azaldu, eta andregaiia nabarmen mendratuz"¹⁵. Hona lehen bi ahapaldiak:

*Milla urte pasata bederatzireun (bis)
Aurten zazpigarrena broman pasa zagon.
Dama gazte polit bat ustez neukan lagun
Gazte-gaztia zala egiña ezagun.
Mingañez alegria, amorioz illun.*

¹⁴ Ibid., 261. or.

¹⁵ J.J. ZUBIRI, P. PERURENA, *Goizueta eta Arano herrietako bizkeren ezaugarri orokorrak*, Donostia, 1998, 238... orr.

Ezkontzeko asita, ara desgrazia! (bis)
Pertsona tranposakin tratatzen asia.
Ni fiñ nebillen baño, orrek malizia
Orain argatik nago bazterren utzia.
Publikatzera noa asunto guzia.

Bordaxuriren kanta¹⁶

Iparraldeko kantarien bidez nahiko ezagun egin zaigu kanta hau. Kanta-liburu batzuetan "Galerianoaren kantua" izenez ageri da. Ahapaldi bizi-biziak dira; errurik gabe galeretara emana den semeak bere aitari botatako zirikada zorrotzak. Datarekin hasten du lehen ahapaldia eta gaian sartzen da berehala. Bigarren eta hirugarrenean, bere errugabetasuna adierazten du:

Mila zortzi ehun eta
hamabortzgarrena
ni Abazparnen preso
bartu nindutena;
Plumaieneko premu
orok dakitena
galeretan higatu
beharko naizena.

Kantatzera niazu
alegera gabe
ez baitut probetxurik
trixtaturik ere;
nebun deusik ebatsi
gizonik bil gabe
sekulakotz galerak
enetako dire.

¹⁶ J. LAKARRA, K. BIGURI, BLAKA URGELL, *Euskal Baladen Azterketa eta Antologia*, (bigarren liburua), Donostia, 1983, 214-215 orr.

Ala zorigaitzeko
premu izaitea
horrek eman baiteraut
bethikotz kaltea
aitari gald'eginik
sortzeko phartea
galeretan eman nau
hau da ene dotea.

Aita elizan maiz dabilela dio ondorengo puntu honetan:

Nun nahi othoitzean
belaunikatua
baindu iduri debru
madarikatua.

Idea bera agertzen du zazpigarren ahapaldian, baina bere premugoa hartu zutenengana ere zirikadak jaurtirik:

Elizan sartzen dira
debozionerekin
iduriz badobazila
saindu guziekin
beren liburu eta
arrosarioekin
Debruiak phesta onik
einen du beiekin.

Amalau eriyotzena

Auzi kriminalen saileko bertso-sorta hau oso ospetsua dugu honezkero. Xabier Letek, Julian Lekuonak eta Antton Valverdekin atera zituzten bertso zaharren diskoan ageri dela us-te dut. Dirudienez, Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskéri-ca* liburutik edota Jesus Maria Leizaolaren *La "Crónica" en la Poesía Popular Vasca* liburutik hartutako bertsioa izango zen. Batean eta bestean datadun ahapaldiaz hasten da, eta trans-kripzioa guztiz desitxuraturik dago bertso horretan:

*Milla sortzireun ta
ogeitabostian
au amairugarrena
Urriko illian,
Martin Etxeberri'ko
Altzibar'enian
atiak jo nituen
ongi illunian
bai eta ireki ere
borondate onian.*

Jesus Maria Leizaolak berak 1808-1814 *EN LA POESIA POPULAR VASCA y otros estudios* deritzon liburuan jatorrizko bertsioa dirudiena dakar. Hemen, datadun ahapaldiaren aurretik beste bost dakartza; lehenengoa, honako hau:

*Bertso berri batzuek
Ditut aterako
Munduko kriaturen
Eskarmenturako;
Grazia eskatzen dizut,
Jauna, artarako
Zeren arkitzen zadan
Motiboa franko,
Pekatore aundi bat
Izan naizalako.*

Seigarren ahapaldia, data dakarrena, honela da bertsio honetan:

*Milla zortzireun eta
ogeita bostean
amairugarrena zan
Urriko illean,
Markin Etxeberriko
Altzibarrenean
ateak jo nituen*

*ongi illunean,
bai eta iriki ere
borondate onean.*

Manuel Lekuonak dakarren bertsioan, "*Martin Itzeberri'ko*" dator. Argi dago "*Markin-Etxebarriko*" dala transkripzio zuzena. Entzuna dut, orain dela urte batzuk aurkitu zirela gertaera honen eskuizkribu eta dokumentazio zehatza eta Markin-Etxebarriko (gaur egun ofizialki *Etxebarriko*) gazteek antzestu ere egin zutela...

Pulunpa¹⁷

Montebideora bidean ontzia hondaratu eta itsasoan galdu zirenen zorigaitza kontatzen da hurrengo bertsoetan. Hona lehen bi ahapaldiak:

*Mila zortzi ebun eta
berrogoi eta bigarrena
uztail hilabetearen
hamaseigarren eguna
kantu berri xarmagarri hauk
eman izan nituiena
sujet bat errekontraturik
zitakeien ederrena.*

*Sujet bat ederra zela
guzia da egia
imposible litzateke
horren disimulatzia.
malur horrek barrituren tu
Espainia eta Frantzia
horrenbertze pasaierekin
galdu izan den untzia.*

¹⁷ Ibid., 243. or.

Ondarroako arrainari¹⁸

“Orioko balea”ren antzeko bertso-sorta dugu hau, hura baino hamar urte lehenagoko data izanik. 20 bertso dira guztiz. Lehenengo biak eta amaierakoa jarriko ditugu hemen:

*Mila zortzirehun laro-
geita hamarrian
apirilan hogeia zan
igande egunian.
Esplikatuko ditut
euskera garbian
zer gertatu zaizkigun
Ondarroako herrian.*

*Baserrin txalopia
Isidoro atzian
itxasora juan ziran
igande goizian.
Arrain hori topa zuen
mila bi t'erdian
arponada ematera
preparatu ziran.*

...

*Hogeigarren bertsuan
ditut despeditu
arrainan pasadizuak
horra esplikatu.
Eibarren behar ditut
hoiek inprentatu
gaztiak ikasteko
papel hoiek hartu.*

¹⁸ X. AMURIZA, *Bizkaiko Bertsogintza* (I), Bilbo, 579. or.

Antonio Zabalaren karlisten gerrateko bi bertso-liburuetan, dataz hasten diren hainbat kronika txiki daude. Ondorengo hauek hautatu ditut:

Milla zortzireun eta ogei ta amairuan...

*Milla zortzireun eta
ogei ta amairuan,
urte oroigarria
guretzat zegoan;
errege Fernando il da
San Migel ondoan,
ezagun zan jendea
zertara zegoan,
eztira bukatuko
lan abek beingoan.*

Aieteko burruka...

*Milla ta zortzireun ta
oi ta amaseyian,
maiatzeko illaren
bostgarren goizian,
batalla bat genduan
Donosti aldian,
kristinuak gugana
etorri nayian:
goiziean ainbat gizon
etzan arratsia.*

*Orduko egiña gendun
makiñat trintxera,
goizian juanak giñan
gerenak artzera;
onera datorrenak
kontuak atera,
pentsa dezake datorrela*

*apropos iltzera;
asko etorri zan baño
gutxi juan atzera.*

Irun

*Milla ta zortzireun da
ogei ta hamazazpi,
maiatzeko illaren
amaseian noski;
oroituko gerade
irundarrak beti,
berak ematen digu
motiborik aski.*

Bertso Berriak

*Milla zortzireun eta
Irurogei ta zortziyan
Asunto bat asi da
Gure probintziyan;
Gerra kalte degunak,
Nere iritziyan,
Euskal erriyak gauden
Lengo dezentziyan.
Orain urte berriyan
Sartuak gerade,
Bañan lengo zarrian
Asiyak dirade;
Lege onetan gauden
Ganbiyatu gabe,
Inor egin eztedin
Euskaldunen jabe.
Araba ta Bizkaiak
Legezko indarrak,
Gipuzkoan ez gaude*

*Laguntzalle txarrak;
Ona iru probentzi
Kantabriatarrak,
Sostenitu ditzagun
Lengo fuero zarrak.*

Jesus Maria Leizaolak euskal bertsoei hasiera emateko era ezberdin batzuk aipatzen dizkigu; gorago aipaturiko *Euskal Baladak* liburuan ere ukitzen da gai hori (ik. Lehen liburua, 46. or. eta hurrengoak). Leizaolarengana etorriz, data jartzea batez ere kontakizunari sinesgarritasuna emateko dela esango digu, eta horretarako Orixe aipatzen du:

“Orixe ha llamado la atención sobre el criterio con el que el público euskaldun aprecia los versos. Cuando ha de aprobarlos no dice que son hermosos sino que son verdad, que la cosa es como el poeta la dice (...).”

Esto quiere decir que la boga del tipo de composiciones encabezadas con indicación de la fecha responde a un deseo del público. Desea saber y no soñar”.

Oraindik luze jardun genezake kronika itxurako euskal bertsoen zertzeladak emanez, baina oraingoz, Jesus Maria Leizaolaren liburua lagun dugula, egin dugun ibilalditxo honekin amaitutzat emango dugu.

Luis Baraiazarra